

# *ttipi-ttapa*

1993.eko Martxoak 25

106. zenbakia

dohain banatzen da



**Irazoki: «Gizona oraindik ez  
duk estreinatu»**

## SAN MARTIN LANBIDE ESKOLA

Tfnoa: 59 20 06 – Oronotz-Mugairi



• **MEKANIKA:** ibilgailu edo kotxeen mekanika, traktoreak, soldadura...

• **OIHANZANTZA** edo **FORESTALA**

• **NEKAZARITZA** eta **MEKANIKA**

• **OSTALARITZA, PUERIKULTURA**

Bi urtez. Eskolak, jantokia eta logelak ere badauzka.

**Praktikak:**

Aste bat eskolan eta bertzea, lantegietan praktikak egiten.

**Nor matrikula daiteke?**

OHO edo EGB egin duena, nahiz eta "Graduado Escolar" ez izan.

**EUSKARAZ eta ERDARAZ**

## CONSERVAS MARTIKO, S.A.

Ahatetan espezializatuak



Ahate-foi

Gibel-gizena

Urdai azpikoa

Ahate-hegalak

Ahate-izterrak

Tfnoa: (948) 63 07 07  
BERA

ZURE MAHAJARAKO AHATERIK HOBERENA

# *ttipi-ttapa*

**HAMABOSTEKARIA**

5.400 Harpidedun

18.500 Irakurle

# non - zer

- 
- 4** **AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
- 
- 7** **HONTAZ ETA HARTAZ**
- 
- 8** **IRAKURLEAK MINTZO**
- 
- 9/23** **HERRIZ HERRI**  
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarena, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
- 
- 24** **ERREPORTAIA:** «Elkarri» mugimenduaren lehen pausuak», zonaldean osatzen ari da elkarrizketaren aldeko taldea.  
Aitor Arozena
- 
- 26** **ELKARRIZKETA:** Francisco Javier Irazoki: "Gizona oraindik ez duk estreinatu". Poeta lesakarrarekin solasean.  
Josetxo Susperregi
- 
- 28** **KIROLAK:** «Josetxo Ezkurra» III. memorialaren finalak jokatutuz ziren.
- 
- 30** **MERKATU TTIKIA**
- 

## ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85  
Tirada: 5.400 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1  
31780 BERA  
Tfnoa.: 63 11 88  
Faxa: 63 12 91

**Erredakzio arduraduna:** Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea **Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Marta, Mirari, Txema Aldabe, Ixabel, Josune, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Pello Etxegia, Daniel Martiarena, Txema Urrotz, J. Igarabide, Pablo Mendiburu, Juana Mari, Mixel, Jacqueline, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernu...

**Inprimategia:** Gertu Kooperatiba Elkarte (Oñati)  
*ttipi-ttapa* aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

**Beharrezko telefonoak**

SOS Nafarroa /Urgentziak...088/061

**OSASUN ZENTRUAK**

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe .....450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza .....510248 / 510573

**KONTSULTAK**

Arizkun .....453039

Gartzain .....580451

Oronotz-Mugaire .....592024

Ituren .....450183

Sunbilla .....450283

Goizueta .....514067

Igantzi .....637755

Arantza .....634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

**ANBULATORIOAK**

Irun .....630264/621106

**OSPITALEAK**

Irungo ospitalea .....614600

Nafarroako ospitalea .....102100

SSko urgentzi zerbitzua .....246750

Virgen del Camino

erresidentzia .....109400

Gurutze Gorria.....226404

**ANBULANTZIAK**

Oitz .....450242/450805

**DYA**

Lesaka (larrialdiak).....(943)464622

Doneztebe (larrialdiak).....171717

**FUNERARIA**

Lesaka.....637404

Elizondo .....580924

**SUHILTZAILEAK**

Oronotz-Mugaire .....592044

**GARRAIOAK**

Bidasotarra .....630279

Baztanesa .....580129

Leitzaran .....515018

**HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:**

Elizondo .....580730

Lesaka .....637154

Bera .....630261

**ABERIAK:**

Iberduero .....450335/450336

**Botikak**

► **Martxoaren 27-28an**, Lesaka, Sunbilla eta J. Iturralde (Elizondo).

► **Apirilaren 3-4ean**, Etxalar, Doneztebe eta F. Lezaun (Elizondo).

► **Apirilaren 8an**, Arantza, Sunbilla eta J. Iturralde (Elizondo).

**Bertsoak****► BERA**

Martxoaren 28an, arratsaldeko 5etan, Kultur Etxean Nafarroako txapelketaren kanporaketa.

**Deialdiak**

► **LESAKA**, apirilaren 2an, Euskara Batzordearen bilera.

► **IGANTZI**, apirilaren 2an, Euskara Batzordearen bilera.

► **ARANTZA**, apirilaren 8an, Euskara Batzordearen bilera.

**Kontzertuak****► LESAKA**

Martxoaren 28an, arratseko 8,30etan, **EKIN** taldearen kontzertua Atxaspi ostatuan.

**Hitzaldiak****► LEITZA**

Martxoaren 25ean, arratsaldeko 5etan, Alberto Sola sendagilearen hitzaldia adinekoen osasunari buruz. 26an Iñaki Perurena eta Guillermo Gomez arituko dira adinekoen gimnasiari buruz, Jubilatuen aretoan.

*Antolatzaile:* Leitzaiko parroikia.

**Bota bertsoa****Ekhiñe ETXEPETELEKU**

Bortzirietako Bertso Eskolako

**Gaia:** Udaberria**Neurria:** Zortziko Haundia

Dena aldatzen zaigu guri  
udaberria aldira  
urtaro honek beti sortzen du  
gu denongan ikusmira  
ikusgarria zuhaitz lore ta  
zelaietako disdira  
nahiago nuke urtaro denak  
horrelakoak balira.

Udaberria etorri ohi da  
alaitasun ta umorez  
usai gozoa ekarri eta  
bete herria kolorez  
badator eta prestatu nahi dut  
orain aurpegi alaiez  
udaberria urte honetan  
egin berdina mesedez.

# AGENDA

## Zinema

### ▶ DONEZTEBE

Martxoaren 27-28an  
"Pensamientos mortales". Apirilaren 3-4ean  
"Matrimonio de conveniencia".

### ▶ LEITZA

Martxoaren 26an  
10,30etan eta 28an 8etan  
"Jaque al asesino". 28an  
5etan "Karate Kid III".  
Apirilaren 2an,  
10,30etan "Makinavaja,  
el ultimo choriso". 4ean,  
5etan eta 8etan "La bella  
y la bestia".

## Gastronomia

### TXITXARROA LABEAN

**Osagaiak 4 lagunendako:**  
Txitxarroa, ozpina, baratzuria eta pipermina.

Txitxarroa labean erre. Ongi erreta dagoela ikusteko, txitxarroaren buru azpian pixko bat sakatu eta arrain hezurra errex hautsiko da. Labetik atera, ireki eta gordinik dagoen ozpin pixko bat bota. Baratzuria eta pi-



Peio TXINTXILLAK emana - HUIZI Jatetxea - GOIZUETA

permina prexitu eta txitxarroari bota. Ondoren, ozpin

pixko bat bota zartagian eta ongi berotu denean, hau ere txitxarroari bota.

Frejidura eta ozpinaren salda guztia zartagian jarri eta sutan paratu. Berotu denean, berriz ere txitxarroaren gainera bota.

Azkenean, txitxarroa dekoratu ongi xehetutako perrexil pixko batekin.

On egin!

## Baserriko feria



### ▶ ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 6.230 pzta. **Zerrigizena** (95-100): 147pzta/kilo **Zerramak**: 60-90 pzta./kilo bizirik.

### ▶ BEHIKIA

•Aretze gizenak:  
**Idixkoak**: Pzta/kg. Kanal  
Extra.....570  
1.koa.....555  
2.koa.....515

**Urruxak**: Pzta/Kg. Kanal  
Extra.....575  
1.koa.....560  
2.koa.....535  
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

### •Behi zaharrak:

Behi nabar gizena: 370 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 400-450 Pzta./Kg. Ka-

nal.

### •Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

**Nabarrak**: urruxak 15.000 - 17.000 eta idixkoak 25.000 Pzta.

**Mestizoak**: urruxak 28.000 eta idixkoak 38.000 pzta.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa


## Ikastaroak

### ▶ DONEZTEBE

SOZIOLINGUISTIKA  
IKASTAROA

Martxoaren 29an,  
"Udal elebakarrak".  
UEMA.

Martxoaren 31an,  
"Bertako hizkerak eta euskara batua". Koldo Zuazok emana.



**MALDAERREKA S.A.**  
FUNERARIA ZERBITZUA

Bittiria karrika - Tfnoa: 637404- LESAKA

**LEGARRA**

PAPERTEGIA  
TABAKOAK  
LIBURUAK  
OPARIAK

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESAKA



- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...



### Jaione Telletxea

Ileapaindegiko langile zubietarra

► **Zein dun hire lanean guttien gustatzen zainen lana?** Guttien permanenteak egitea eta gehien orraztea

► **Oraingo gazteriak kezkarik ba al din edo pasota dun?** Kezkatia da, batez ere nola segi aurrera.

► **Ile kizkurra ala lisua?** Lisua, normalean izaten ez dena nahiago da.

► **Mutil gazteak matxistak al ditun?** Bai, bastante.

► **Mutil batengan, politasuna edo burutsu?** Burutsua eta ahal bada polita.

► **Emakumezkoak soldaduska bai ala ez?** Ez, eta mutilak gutxiago.

► **Ligatu, euskaraz ala erdaraz?** Euskaraz.

► **Bizitzeko herri ttikia ala haundixea?** Ttikietan, lasaitasun gehiago dego.

► **Eta musika mota...** Lasaia dena.

► **Bertoak kantatu ala aditu?** Aditu eta idatzi.

► **Mutil batetan zer dun lehenbizi begirutzen dionena?** Jatorra den edo ez.

### ► Ekaitzaren garrasia

Urtz  
Euskalerrria - 1993

Arrakasta haundiarekin kaleratu berri du bere lehen iraupen luzeko lana Trintxerpeko Urtz taldeak, Gor disketearen eskutik. Aintzinetik, maketa aski aditua izan da «Euskadi gaztea» bezalako irratietan lehen-dabiziko postuetan ibili bait da eta horrek jendearen artean ezagunagoak izateko bidea errextu die. Diska honetan, musika lerro jakin bat aurkitzea ezinezkoa da. Heavy ikutuak, balada goxoak, pop kutsuko



Urtz taldeak maila haundiko diska kaleratu du

abestiak, irrintziak, haurren negarrak... Etiketen kontrako musika. Beraiek onartzen dutenez, "heavyaren eraginak badauzkagu, baina beste estilo batzurenak ere bai". Kanta batek bertzerak al daketa haundiak dira, baina zerbait azpimarra-

tzekotan, abeslariaren ahotsa izanzen zen, hori izan bait daiteke arrakastaren errudun nagusienetakoa eta Urtzekoen ezaugarriarik deigarriena.

Lehenbiziko diska izateko, inolako lotsarik gabe kaleratu dira. Beraiek kanta baten hitzak dioenez: "Ez

*dut inoiz lotsarik izan, ez dut inor lotsatu nahi...".*

Oraindikan, hobetzeko gauzak badituzte, baina Euskalerrriko talde famatuenetakoa izateko bidea daramate.

AITOR

✳ Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz!

**BERA**  
DESINFECCIONES

☎ 63 01 55

BERA

**OKANE**

**Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...**

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - **BERA**

**ZIZKA OSTATUA**

**Martxa eta mozkor saltsa**  
Altzate 28 - **BERA**

**TXOKO erretegia**

**Bazkari, afari eta gosariak**

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91

## «Errepoblazioak ez dute hutsegin» alkateen ustez

Bidasoa aldean 1989ko sutearen ondoren egin-dako errepoblazioak "ez dute hutsegin eta beraien garapena guztiz normala da" bertako alkateen eta Nafarroako Gobernuaren Mendi zerbitzuaren ustez. Modu honetan, zenbait komunikabideetan agerututako informazioa gezurtatzen da, bertan plantazioen % 80a alferrik galdu

zela erraten baitzen.

Bertzalde, Foresna-Zurgaia elkarteak aurten plantazioak egin nahi duten guztiei informazio eta aholkularitza kanpaina burutzen ari da eskualdeko Herriko Etxeatako bulegoetan. Hilaren 25ean Arantzan, 26ean Beran eta 29an Leitizan izanen dira, goizeko 9etatik arratsaldeko 2ak arte.



Sunbillako saihebidetako tunelaren obrak aintzinerara doazi, ziztu bizian. Pentsatzekoa da, beraz, laister trafikora irekia egonen dela.

## Bera-Lesaka martxa lanpostuen alde



"Enplegu eza eta des-industrializazioaren aurka"ko martxa burutuko da larunbat honetan (martxoak 27) Beratik Lesakaraino.








Eskualde mailako ELA eta LAB sindikatoak antolatutako langile mugimendu honek, enplegua sortzeko ahalegina bultzatzeko asmoa ere badu.

Bera-Lesaka martxa hau, larunbatean arratsaldeko 5etan abiatuko da

Altzateko plazatik .

Bertzalde, ELA eta LAB sindikatoak eskualdeko udal guztietan mozioa sartzeko asmoa azaldu dute. Bi sindikatoak azaltzen dutenez, "2.189 pertsona daude lan bila, populazio aktiboaren %20a". Zenbait lantegitan, gainera, egoera kezagarria da, horren adibidez, Laminaciones eta Funvera jartzen dutelarik ELA eta LABek.

### INFORMAZIOA:

-  Nominak
-  Aseguro Sozialak
-  Lan-kontratu bonifikatuak
-  Enpresa berrien sortzea
-  Diru-laguntzak
-  Errenta Deklarazioak
-  Kontabilitateak

## ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

### LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

### IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



## HAMABOSTALDIKO JOKALDIAK IDAZTEN DUTENEI

Lehen esana dago batek bestearen ona ezin duela ikusi eta ahal bada izorratu egiten dutela. Lenengo esan behar dut Patxi Mindegia naitzela eta ttipi-ttapako azken aurreko aldizkarian ateratako «hamabostaldiko jokaldiak» partean, gure apostuaren kritika leitu nuen eta kritika horiek garbitu nahi ditut.

Hitz honetatik

aurrera idatzi behar dutena "M eta konpañia" rentzat dira, beurek badakite zein diren.

Aspaldian zabiltzate Nafarroako aizkora kirola izorratu nahirik baina alper-alperrik zabiltzate; guk sarreran kartel haundi bat jarri genuen esanez «16 urtetatik gora 2.000 pezeta» eta sarrerara 700 lagun bildu ziren, inor bueltatu gabe etxera garestiegia zela esanez. Plazara etortzen den jendeak ulertzen bait

du aizkorak dituen gastuak eta nere adibidea jarriko dizuet: ni otsailean hasi eta apostu egunerarteko hogeitazero horietan 25.000 kilo egur moztu nituen, mila kilo egurrek 12.000 pezeta balio du, kontuak egin orain eta 2.000 pezetako sarrerari horrenbesteko inportantzia ematen badiozue, 4.000 eta 5.000 pezetako futbol sarrerak zeriduritzen zaizue... eta Doneztebeko frontoia 40.000 pe-

zeta apostu egunean kobratzea...

«Ezer jarri baino lehen ttipi-ttapan pentsatu zen idatzi behar duzuen, batzutan hobe izaten baita ixilik egotea, M eta konpañia».



Patxi Mindegia  
Aizkolaria  
(ZUBIETA)

## Oharra

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi

duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, erredakzioak bere esku izanen du horretarako eskubidea.

## Masaia eta bizkortze ariketak

### Txomin Irazoki (Fisioterapeuta)

Astelehen, asteazken eta ortziraletan, 15,30etatik aintzinerara  
Astearte eta ortzegunetan, 9,30etatik 13etara eta 14,30etatik aintzinerara  
Eztegara 24, Tfnoa: 63 13 91 - **BERA**

ZONALDE HONETAKO 5 ETXETIK 4tan  
ttipi-ttapa **HARTZEN DUTE**  
**ZURE KLIENTEEK ERE**  
ttipi-ttapa **HARTZEN DUTE**

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanzazue Irurritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

## SAROBE

### okindegia



**SANDERS Pentsuak**

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - **BERA**

## J. M. ANDUEZA IRIARTE

### Instalazio elektrikoak

#### ☛ Sua itzaltzeko tresna guztiak

- Mangerak
- Extintoreak
- Sua mozteko atek: Rf-30, Rf-60, Rf-90. etab...

#### ☛ Alarmak: Suarenak, lapurretarenak, gasarenak...

Askain Karrika 12 ☎ 630854 - **BERA**



### Bertsolari Txapelketaren azken kanporaketa igandean

Astean zehar, ortzirala bitarte, 'Bertsolarien Erakusketa' ikusgai Kultur Etxean

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Igande honetan ospatu da Berako Kultur Etxean Nafarroako Bertsolari Txapelketaren azken kanporaketa. Bertan zazpi bertsolari arituko dira: Manolo Arozena –iazko txapelduna–, Bittor Elizagoien, Jose Migel Argiñarena, Aitor Telletxea –16 urtetako arantzarra–, Luis Etxeberria –33 urtetako Arantzarra–, Txomin Ezponda eta Txomin Amorena. Zita ordua arratsaldeko 5etan Berako Kultur Etxean.



Nafarroako Bertsolari Txapelketan parte hartzen duten 21 bertsolarietatik 9 Bortzirietako Bertso Eskolakoak dira.

ezagunen en errebasoa eta gaur egungo bertsolariez hainbat datu eskeiniko dira. Nafarroako bertsolaritzak ere izanen du lekurik eta bukatzeko Amurizaren bideo batez, bertso bat nola burutzen duen kontatzen da. Erran bezala goizetan Bortzirietako eskolakoentzat eta arratsaldetan 4etatik 6etara nahi duen guzientzat Kultur Etxean.

**Rene Paul Gelosen** lanak ikusteko aukera izanen dugu apirilaren 17tik 25era Berako Kultur Etxean. Gelos Urruñakoa da, 72 urte ditu eta mundu osoan zehar erakutsi ditu bere eskultura eta pintura lanak –Japonia, Egipto, Suiza, USA, Polonia, Alemania, Ingalaterra...–. Goi mailako artista eta jakina, goi mailako pertsonalitatea.



### W ttipi-flash

□ **Bortzirietako Hiri** Hondakinen Mankomunitateak onartu berria duenez, Intzolako errekan duen zabortegirako zapalgailu bat erostea erabaki du. Hortaz gainera, beira edo kristala biltzeko bertze 15 ontzi ere erosiko ditu. Zabortegia beira haunditzeko posibilitatea, bertzalde, aztertzen ari dira egunotan.

### Erakusketa aste osoan

22tik 26ra bitarte, bertsolaritzari buruzko erakusketa burutuko da Kultur Etxean. Sei panel haundirekin eta testuak hiru hizkuntzetan dituela, bertsolaritzaren historia, bertsoa nola egiten den, bitxikeriak, bertsolari

GOZOTEGI - JAIONE



Itzea 3, 630786 - BERA

**BOTXO ostatua**

Tfnoa.: 63 00 52  
Zalain auzoa, BERA

**BORTZIRI**  
ASISTENZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA

\* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa

\* Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu

Itzea 4, behea – BERA Tfnoa: 63 10 91

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

LESAKA

Beti Gaztek urteroko asanblada egin zuen

9 milioi inguruko aurrekontua izanen dute aurten

AITOR AROZENA

Beti Gazte elkarteak urteroko asanblada orokorra burutu zuen eta urte honetarako ia 9 milioitako aurrekontua onartu zen. Iazkoan 8.480.000 pezetako sarrera-irteerak izan zituzten. Eraberean, elkar-tearen egoitzan egiten ari diren obren berri eman zen, behar izanez gero bi milioitako prestamoa eskatzeko baimena emanaz. Bazkideek ez zuten egoki ikusi Errealarekiko konbenioa firmatzea.

Zuzendaritza batzordeari dagokionez, Jose Emilio del Riok jarraituko du lehendakari bezala, Fidel Ordoki izanen da lehendakariordea eta Modesto Maia 'Pilloti' idazkaria, eta gainontzekoan iazkoak segituko dute.

Beti Gaztek, gauregun, 560 sozio ditu eta 173 gazte bere izenean kirol egiten.



David Etxebarriak eraman zuen II. Lesakako Udala txirrindulari saria Gardelko Bagoetako helmugan errex nagusituz

AITOR

Trenbide zaharra Onbordin moldatzeko firma biltzen ari dira txirrindulazaleak

Iniziatiba interesgarria hartu dute herriko zenbait txirrindulazalek beraien irtenaldiak atseginagoak izateko. Aunitz dira pasoa egiteko (bizikletaz nahiz oinez) trenbide zaharra erabiltzen dutenak. Bertze zenbaitetan bide hau moldatu bada ere, problema Onbordiko tu-

nelara iristean gertatzen da, izan ere urte osoan zehar urez betea izaten baita leku hau. Arazoa moldatzea eskatuz, firma biltetari ekin dio talde honek eta jasotakoekin idatzi bat presentatuko dute Herriko Etxean, ahal den neurrian egoera konpon dadin.

ttipi-flash

- **Atxaspi** ostatuan rock kontzertua izanen dugu igande honetan, arratseko 8,30etan. Bertan Irungo "Ekin" taldea arituko da.
- **Malabareen** ikastaroa burutzen ari da Matxinbeltzanean, astelehen eta asteazkenetan, arratsaldeko 6,30etatik 8etara. Oraindik badago izen emateko aukera.
- **Eskapada** ederra izan zen martxoaren 16ean ermitako kurban. Zubi aldera zihoan kamioi bati bobina bat erori eta Lesakako gazte batzuen kotxea kolpatu zuen. Zorionez, haundiena sustoa izan zen.
- **San Antongo** bestak antolatzeko 55.000 pz-tako dirulaguntza eman du Udalak.
- **Hiru** langile hartuko ditu Udalak INEMekin duen konbenioaren bidez, herrian zenbait lan egiteko.

**EROSLE**  
LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena zugandik hurbilago

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264

*Deñe*  
LENTZERIA  
MERTZERIA  
Tfnoa.: 62 75 14  
Beheko Plaza 8, LESAKA

LORA DENDA  
**TXIRULA**  
Bittiria LESAKA

**BEKO ERROTA**  
Lore eta landareak  
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26  
LESAKA

Loradenda, bitxikeriak, opariak, eskulangintza

Bittiria, Tfnoa: 62 75 42  
LESAKA

**ONIN**  
Agentzia

Albistur 53, ☎ 637359 - LESAKA

- ☛ Aseguruak eta kontabilitatea
- ☛ Errenta eta IVA deklarazioak
- ☛ Eskrituren likidazioa
- ☛ Edozein aferetarako ofizina
- ☛ Zuzarren-en kolaboratzaileak

## Pirutegikoek sari garrantzitsua eskuratu dute

Bertzalde, Zahar Etxearen urteko diru ziloa Gobernuak ordaindu du

PELLO eta JON

Pirutegikoek hirugarren saria eskuratu dute Estatu mailan burutzen den lehiaketa batean. Lehiaketa hau, Zaragozan burutu den 'Feria Internacional de Maquinaria Agricola' delakoak antolatua zuen eta nekazari gazteen proiektu berrientzat zegoen bideratua. Lortu duten saria 600.000koa da. Zorionak!

### Defizita ordaindua

1991. urtean, Zahar etxearen lehen urtea, 300.000 pezeta paratu behar izan zituen Udalak, bertan zeudenek ordaindutakoak ez baitzuen gastu osoa gainditu. Nafa-



Atzaparrak noizean behin moldatzea komenigarria dela eta, martxoaren 29an izanen da aukera horretarako. Interesatua denak nahikoa du kooperatibara deitzea lehenbailehen, 635214 telefonora. Bertze egunen batean ere etorriko da hogeiren bat edo bilduz gero eta «Usoa» kooperatibara abisatuz.

roako Gobernuari laguntza eskatu eta berorrek hartu du bere gain defizitaren gastua. Ondoko urteko defizita, 1992koa alegia, tti-

kiago izan da, 200.000 pezeta ingurukoa; hori ere Gobernuari bidali zaio, lagunduko duelakoan.

### Eskolako idorpea itxi

“Landagain” eskola berriki egin izanagatik, ttikia gelditu da; egia erran hastetik ttikia egin zen, eta haurrak estuegi dabilta behelaldean, bai ikasgelan, bai sukalde eta jangelan ere. Hori izan da, idorpea ixtea eskatzeko arrazoia. Irakasleen ustez, haur ttikiak egoki moldatzeko beharrezko baitute toki hori; nahiz eta idorrik gabe gelditzen diren. Dena den, plaza ez dago urrun eta bertako idor ederraz gehiago baliatuko dira. Itxitura lanen kostua 2.869.825 pztatakoa da. Gobernuak lagunduko ahal du, eskatu behinpehin eskatu zaio.

**IRUBIDE**

**OSTATUA  
ERRETEGIA**

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

**XATURETXEA**

**FONDA**

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

**TXOKOA OSTATUA**

- × Eguneko menua
- × Asteburutan, kaxuelak eta karta
- × Gosari, bazkari eta afariak aintzinetik eskatuta
- × Pintxoan espezialduak
- × Gazte giroa

Tfnoa: 630286, Alzate • **BERA**

**ALBARTETXEA**

**JATETXEA**

Otordu goxoak sutondoan  
Asteartea itxita

Antoiu 26  
Tfnoa: 948-627622  
**LESAKA**

**KOXXKONTA**



Sagardotegia  
**ZABALIK**

Deitu  
erreserbak  
egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - **LESAKA**

**ARRANO**



**OSTATUA**

Legarrea - **LESAKA**

IGANTZI

Joan den urtean baino hiru lagun guttiago gara, 588

Bertzalde, harrera ezinhobea izan zuten Goizuetara joandakoak

OSKAR TXOPERENA

Zenbait aldaketa izan ditu Igantzik azken urteotan biztanleei dagokionez. Daturik aipagarriena hiru lagun guttiago gaudela, hau da, 591tik 588ra jeitsi gara. Bertzalde, gizonen artean, emakumezkoek 5tan egin dute behiti. Azkenik aipatu lau jaiotza eta bortz heriotza izan direla.

**Bake epaile berria bilatzen**

Nazario Zelaietak bere egin beharra bete duenez, epaile berria bilatzen ari da udala herrirako. Horretarako norbait prest egonen balitz, martxoaren 25a bai-



Mendi bizikleta taldeko gazteak dira hauek. Jo ta ke segitzen dute prestatzen eta inguruko proba guztietan parte hartzen.

OSKAR

no lehen izena eman beharko luke Herriko Etxean.

**Goizuetara mendiz**

Berrogeitamar lagun gutti gora behera joan ziren Goizuetara martxoaren

14ean. Mendian ibiltzeko egun zoragarria izateaz gain, bertan izandako harrekin zoratuak etorri ziren mendizaleak, dantzaldia eta guzi izandu bai-

tzuten. Ez ginateke harrituko oraingo hau urteroko ohitura bihurtuko balitz.

Bertzalde, ez al da momentu aproposa mendi taldea sortzeko?

**MANOLO TABERNA**

Edari Banatzailea

Errefreskoak, Ura,  
Ardoak, Likorrak,  
Txanpaina

Tfnoa: 63 10 27 - BERA

**ZALAIN JATETXEA**

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 **BERA**



**KATTU**

OSTATUA  
JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • **LESAKA**



## Amaia Telletxea lehenbizikoa Etxarri Aranazko saioan

Luis Etxeberria eta Aitor Telletxeak igande honetan kantatuko dute Beran

MIRARI eta MARTA

Dakizuen bezala, orain dela bi aste hasi zen Nafarro XXII. bertsolari txapelketa. Etxarri-Aranatzen izan zen lehenengo kanporaketa. Bertan Amaia Telletxea Ibaialdekoak bertze seiren artean parte hartu zuen, lehenbiziko postua lortuz, 488,5 punturekin. Bertzalde, kartzelako gaieko bertso onenaren saria ere Amaiarentzat izan zen. «Urtetan etxean lanean aritu ondoren edari magiko bat lortu duzu, hartatik edanda ikustezin egiten zaituena, zeregiteko asmoa duzu?». Honako hau izan zen epaimahaiaren arabera bertsorik onena:



Igande honetan Beran arituko dira Luis Etxeberria eta Aitor Telletxea.

Zure aurrean ni lasai nago  
Egindakoa esateko  
edaritxo bat egina nuen  
inortxok ez ikusteko  
Orain badaukat hemen aukera  
nahi nuena egiteko  
nere lagunak eta etsaiak  
zein diren ezagutzeko.

Amaia Etxarri Aranatzen lehenbizikoa izan arren, kontutan hartu behar da Heletako saioan bortz bertsolarik berak baino puntuazio altuagoa ateratu zutela, beraz finale-

rako txartela ez dago baterre errea. Azken kanporaketan zer gertatzen den ikusi behar.

Bertzalde, txapelketa honetan parte hartzen duten bertze bi bertsolari arantzarrak (Aitor Telletxea eta Luis Etxeberria) Berako Kultur Etxean igande honetan arituko dira arratsaldeko 5etatik aintzainera, azken kanporaketan. Finala, apirilaren 4ean izanen da Iruñean.

### Drogari buruzko hitzaldia

Guraso elkarteak antolatuta, drogari buruzko hitzaldi bat izanen da Zahar-Txokoan, ortziralean (martxoak 26) gaueko 8etan.

**LAINO**  
**LIKIDAZIOAK**  
San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA



**ATERPE**  
**jatexea**

Tfnoa.: 63 41 79  
ARANTZA

**IRAGARKI HAU 5.400 ETXETAN SARTU DA ZUREA ERE SARTUKO DA PUBLIZITATERAKO (tipi-ttapa ERABILIZ GERO)**

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



**ERRO**  
**BIDAIK**

BIDAI  
AGENTZIA  
G.A.T. 2.015

- ✕ HERRIAK
- ✕ MENDIAK
- ✕ TURISMOA
- ✕ TREKING eta BIDAI ALTERNATIBOAK

ADUANAKALERA, 5  
☎ 943 - 615177  
☎ 943 - 619489  
FAX 943 - 619517  
20.300 IRUÑ

## NATUR ETA ESKU TERAPIA

### QUIROPRAKTIKA

Sendatzeko modu naturala da. Interesatzen bazaizu deitu telefono hontera:

☎ 45. 16. 42



Inzakardi 3 - 1. A eta B - **DONEZTEBE**

SARA

Pilota elkartearen afaria larunbat honetan

Gaztetxearen biltzar nagusia, martxoaren 13an iragan zen

MIXEL eta JACQUELINE

Martxoaren 27an iragaitekoa da elgarretaratze hau Omordian, 8etarik goiti. Izen emateak hila-bete hunen 24a arte dira, Herriko Etxeko edantegian, trinketean edo pilota eskolarekin harremanetan sartuz Kirol Aterbean as-teazken arratsaldez.

Korrika

Aurten saratarrek, Azkaine eta Senpere artean dituzte beren kilometroak. Beraz, parte hartu nahi dutenek gogoan har dezatela martxoaren 27an arratsaldeko 6 et'erdietako finkatua dela hitz ordua Sarako plazan, elgarrekin parte hartzeko gisan Korrikan. Korrika, 7ak eta 7 et'erdia artean pasatzekoa da Azkainen.

Gaztetxearen biltzar nagusia

Martxoaren 13an iragan



Aurtengoan saratarrek Azkaine eta Senpere artean dituzte ibili beharreko kilometroak

da Gaztetxearen Biltzar nagusia.

Diru egoera eta azken hilabete hauetan Gaztetxeak antolatu dituen ekitaldiak aipatu dira: banabertze Ihauteriak, elkartearen sustenguekin antolatu 92ko gaupasak...

Ondotik proiektuak aurkeztuak izan dira: jakin arazten daukute Bazko astelehenaz, apirilaren 12an

eginen dela hemezortzigarren mende bukaeran (1793an Frantses iraultzaren ondotik) Saratik eta bertze auzo herrietarik kanporatuak eta urrunduak izan ziren jendeari buruzko omenaldia.

Bertzalde bi hitzez aipatzen ahal dugu bulegoaren berritzea. Lehendakaria: Manuel Fagoaga. Idazkaria: Sophie Elizal-

de. Diruzainak: Jean Baptiste Fagoaga eta Philippe Garbiso.

Oskorri Saran

Martxoaren 14ean 650 jende hurbildu dira euskal musika talde goraiatu hunen entzuteko eta orai eskertzeko tenorea jina zauku. Alabainan arratsalde giro alai eta ezin hobe batean joan da eta horretarako bihotzetik eskerrak bihurtzen ditugu ikastolaren izenean eta gure kulturari atxikiak diren guzien izenean, Oskorriri, Zizkuitz txarangari eta entzule guztieri.

Euskal Idazleen Biltzarra

Nola ez aipa ezin aphantzia den gertakaria. Apirilaren 12an iraganen da goizetik arratsa arte Kirol Aterbean, Syndicat d'Initiative taldea delarik antolatzaile urteoro bezala.

HERRIKO ETXKO EDANTEGIA

Michel eta Kaitin Guendiaín

Tfnoa: 59 54 25 19 64310 SARA



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

LABAIENGO OSTATUA

Pentsio osoa

Sukaldaria Julieta andrea

Tfnoa: 450055 - LABAIEN



CATERPILLAR MIXTA - 428

SASOI

EXKABAZIOAK

450286 ARTZE - DONAMARIA

# Ulibeltzak elkarteko asanblada orokorra larunbat honetan

Junta berriak hainbat proposamen aurkeztuko ditu

JOSUNE ETA IXABEL

Larunbat honetan, martxoaren 27a, burutuko da Ulibeltzak elkartearen bilera orokorra arratsaldeko 7etatik aintzinerara. Bertan tratatuko diren gaiak honako hauek izanen dira: 1.- Aintzineko akta onartzea. 2.- Elkartea pintatzearena. 3.- Barneko normatiba aldatzearena. 4.- Telebista jartzeko proposamena. 5.- Bertze zenbait gai. 6. Galderak eta eskaerak.

Jorratuko diren gaien garrantzia dela eta Ulibeltzak elkarteak bere bazkide guzietan agertzeko eskaera luzatu nahi die.



Bertsolariak eta trikitilariak, herri kirol taldeak antolatutako jaialdian

ARTXIBOA

**Kargu banaketa** Junta berria osatzen duten sei lagunen arteko kargu banaketa egina dago jadanik, eta honelaxe gelditu da: *Lehendakaria:* Joxemari Iriarte, *Lehen-*

*dakari-ordea:* Joxemi Petrirena, *Idazkaria:* Rakel Urtxegi, *Diruzaina:* Hilario Urtxegi eta *Bokalak* Clemente Iriarte eta Aitor Zugarramurdi.

## Bertso saio bikaina, apirilaren 11an

Herri kirol taldeak bertso saio ederra antolatu du datorren apirilaren 11 irako, momentu honetan, punta-puntan dabiltzan bertsolariekin.

Frontoian, arratsaldeko getan hasiko den jaialdian, Andoni Egaña, Jon Sarasua, Angel Mari Peñagarikano, Xebastian Lizaso, Xabier Euzkitze eta Iñaki Murua bertsolariak arituko dira eta gaiak emateko lana, Bittor Elizagoien arraioztarrak beteko du.

Josune eta Ainhoa herriko trikitilariak ere giroa alaituz arituko dira jaialdi honetan.

## LANCHAS



- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Tfnoa: 630735 - BERA Tfnoa: (943) 622305 - IRUN

## CRISTALERIA VELATE

- Kristaleria orokorrean
- Barnekaldeen dekorazioa
- Bainurako mobleak eta manparak
- Pareta ispiluak
- Bidriera artistikoak

Proiektuak eta aurrekontuak, konpromisorik gabe

Villaba Etorbidea 12 - IRUÑEA ☎ 132021  
Merkatarien karrika 5 - DONEZTEBE ☎ 450991  
Pedro Axular 1 - ELIZONDO ☎ 580825

IRAGARKI HAU 5.400 ETXETAN SARTU DA

ZUREA ERE SARTUKO DA  
PUBLIZITATERAKO

ttipi-ttapa ERABILIZ GERO

## NARBARTEKO HERRIKO OSTATUA

MENUAK eta KARTA

San Andres 1, ☎ 592159 • NARBARTE



## GARAICO ESKEINTZA

- ☘ Hazitarako patata
  - ☘ Fruitondoak
  - ☘ Udaberriko landareak
- ETORRI ETA IKUSI

NARBARTE - ☎ 592200



## ARROPA ETA OPARI DENDA

Tfnoa: 451540

Mercaderes 9  
DONEZTEBE

## DONEZTEBE

### Laxoari buruzko bideoa merkaturatu da egunotan

Gidoia Tiburtzio Arraztoarena eta Mitxel Ibarrola bideoegilea

TXEMA ALDABE

Garai batean artzaiek soroetan jokatzen zuten eta ezagutzen den pilota joko zaharrenari buruzko bideoa egin dute Tiburtzio Arraztoa eta Mikel Ibarrolak. Martxoaren 10ean egin zen aurkezpena eta 50 minutuko iraupena duen bideoa hamaika atalez osaturik dago, bertzeak bertze, historia, jokatze lekuak (soropilak edo pilotasoroak), botarria, tresnak, xaxaria, kontatzeko modua angelus edo azken bortz finalerako jokaldiak.

Bideo hau egiteko Caja Rural, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutoa eta Nafarroako pilota federazioaren babes eta dirulaguntza izan dute bideo egileek.

**Euskaraz ere eginen da**

Hasiera batean, eta atera dituzten

300 kopiaren kostoa or-

daindu ahal izateko erderaz egin zuten, bideoegileen ustez bi hizkuntzatan egitea garestia zelako. Orain, berriz, erabaki dute euskaraz ere egitea.

Bideo hau Nafarroako Caja Ruraleko bulego guzietan egonen da salgai, hala nola inguruko zenbait herritan eta Iruñeako Xalbador eta Auzolan liburutegietan, 4.000 pezetatiko prezioan.



Laxoa partidu bateko jokalariek duela 32 urte ateratako argazkian

### Soziolinguistika ikastaroa interesgarria

T.A.

Heldu den astean bukatuko da ikastaro interesgarri hau. Aztertu dira euskararen normalizaziorako bidean, hainbat eta hainbat gai. Ikastaro honetan, 50 bat lagun bildu dira hitzaldi bakoitzean eta hau akitzean, ea ez den dena hutsean gelditzen eta lan taldeak sortzen diren.



Eskualdeko komunikabideak eta euskara zerbitzuek eman zuten beraien hitzaldia Argazkia: TXEMA


**FOTO MENA**  
ELIZONDO

Ezkontzetako erreportaiak argazkiak eta bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40 ELIZONDO

Eta orain, zure koloretako argazkiak **ORDU BATEZ ERREBELATUAK** ditugu

TELLETXEA  
MOBLEAK



#### Moble erakusketa haundia

- Edozein era eta neurriko altzariak egiten dira. Fabrikanteak gara.
- Tresillo eta tapizerietan aukera zabala
- Zure erosketengatik opari ona eramanen duzu

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - **DONEZTEBE**



OTORDUAK • LOGELAK  
Tfnoa: 450793



## Bakoitza bere adinekoekin, zubietarrak mugitzeko animoso

JUAINAS

Denbora franko joan zait berriak eman gabe. Ulertu eta barkazazue; bat ez baitago beti prest! Animoak ere, ez dira beti berdinak, naiz eta ikusi, proportzionalan, bakoitza bere adinekoekin, zubietarrek mugitzeko animo bastante dutela.

**Adinduek** besta ospatu dute. Zubietako Ostatuan zenez, bertako ugari bildu ziren: Antoni, Jose Antonio, Hilari... Azken honek mundu guzira 'haurra!' deituz. Jubilatuetan gazteenetakoa, Dendaingo Pedro, ez. Kanariasetan



*Martxoaren 16an hil zen Pedro Erro. Aste batzu direla bertsolarien ahoan egonda, ohatzean... Bapatean, ixil-ixilik, ailegatu zaio.*

zegoen hilabete pasa joana. Majo pasatu omen du. Eta jakin badakizue ehun zubietarretatik 24 baino gehiago jubilatua dela?

Toki sanoa, dudarik gabe!

**Mutil-neska zaharrak** eta ezkonduak ez dute nobedaderik, betiko martxan segitzen dute... ume

gutxi sortuz!

**Gaztetxoak**, berriz, bakar batzuk behinik behin, elkarte bat egitekotan ari dira, aktibitateak eta dirulaguntzak gauzatu eta lortzeko asmoarekin... 'Elutsa' izendatu dute proiektua. Animo!

**Eta haurrak?** Herriko Eskolan dauden gutxi horiek, irratsaioetan eta guzi aritzen dira Xorroxinekoekin, txiste eta asmakizunak kontari... Berriak ere eman zituzten... Migelteneko Mikelek elur bola bota zuela eskolako leihora... apeza jauna meza ematera berandu iritsi zela... Horrik heldu da jarraigoa!.

ITUREN

## Plazaren losatzea bukatu da


IBAN ISASI

Duela hilabete batzuk Iturengo Plazan hasitako lanak bukatzeaz daude. Losatze lana egin dago dagoeneko eta bankuak eta zenbait grada baita. Karretera ondoko platanoa ere moztu dute.

### Korrika 93

Iruñan, martxoaren

*Moldaketa guziak egitean. Plaza ingurua itxurosoa geldituko da.*



26an hasiko da aurtengo korrika. "Denok maite dugu gure herria euskaraz" lemapean eta Bilbon buka-

tuko da apirilaren 4ean. Aurtengoan ere ez da Iturendik pasatuko, baina Baztanaldetik bai pasatuko

dela. Horregatik, bertara euskara eta AEKren alde laster egitera joateko deia luzatzen dugu.

GOIZUETA

## Martxan dago telebista errepetidore berria

Bertso eskolara, bestalde, 20-35 urte bitarteko zortzi ikasle biltzen dira igandero

ESTEBAN AROZENA

Arazo tekniko-administratiboak gainditu ondoren, ETB1 eta 2, TVE1 eta 2, Tele5 eta Canal Plus-eko seinalea hartzeko gai da Olasoko bizkarrean udalak ETBren laguntzaz egin duen errepetidorea. Esan behar da, konpondu beharreko arazoak sortzen direla oraindik, baina teknikoek diotenez epe motzean gorebeherarik gabe ikusiko dira, etxe bakoitzak bere medioak jarritakoan, noski, antenak, etabar...

### Olaizola eta Berroetak...

ez zuten suerte gehiegirik izan martxoaren 13an, Labriten jokaturako "Caja



Antonio Huizi eta Elena Antonek 40 urte bete dituzte ezkondurik

Navarra" txapelketaren finalean. Partidu ona egin bazuten ere, 22-20ko emaitzaz galdu zuten Iturengo Leizta-Apeztegiaren kontra.

□ **Europako** Ekonomi Elkartek industriarako

ematen dituen dirulaguntzak bideratzeko sortua da Cederna-Garalur. Udalak erakunde horretan asoziatzeko erabakia hartu zuen azken plenoan ia 200.000 pezeta kostako bazaio ere.

Korporazioak adierazi zuten, goizuetar bat baino gehiago lantegiren bat sortzeko asmotan omen dabil, eta Cederna-Garalurrek era guztietako aholkularitza eta laguntza eskeintzen duenez bazkide izanez gero, ongi gastatuzat jotzen omen du aipaturiko diru kopurua.

□ **Helduentzat** bertso eskola martxan dago gure herrian, eta Joxe Manuel Oiartzabalen gidaritzapean 20-35 urte bitarteko zazpizortzi ikasle biltzen dira igande eguerdiero ikastolako gelan. Taldea haunditzeko asmoa dute eta horregatik, deialdi bat luzatu die bertsoaren inguruan ongi igaro nahi duten guztiei.

ARESO

## Emakumeen Eguna ospatu da aurten ere

JUANA MARI SAIZAR

Ia etxe guztietan baserri lanak egiten dira eta lan hauetatik batzuk, bereziki emakumeenak dira aspaldiko urteetako ohiturari jarraituz. Martxoaren 8an Emakume langilearen eguna ospatzen da mundu guztian eta aurten ere gure he-



Datozen urtetarako deialdia ere luzatu dute emakumeek

rrian emakume batzuk elkartu ziren festa hau ospatzeko. Nahiko laister eta presaka antolatu zuten me-

rienda eta horregatik gutxi bildu ziren. Halere, aurrerapausu polita egin da. Hurrengo urteetan egun hau

hobeki eta denborarekin prestatzea pentsatzen da, txarлак, zinema, afariak, etabar... Aresoko emakume guztiak gonbidatuak gelditzen dira eta ea urtean behin gure diferentziak alde batera utzita emakume bezala elkartzen garen.

### Errepidearen zabaltea

Aresoko kruzetik herri-rra datorren karretera zabalteko asmotan dabilta eta karreteraren alderdi batera eta bestera ukitu beharreko terrenoak desjabetzen hasiko dira laister.

## Errabiaren aurkako txakurren txertaketa eta mikrotxipa jartzea gaurtik hasten da

JOSEBA AZPIROZ

Gaurtik (25etik) aurrera zure txakurrak errabiaren aurka txertatu ahal izango dituzu. Txertatzea Liburutegi zaharrean egingo da (arraindegiaren atzekaldean), egunero, astelehentik ostiralera, eguerdiko ordu batatik ordu biak arte eta arratsalde 3,30etatik 5,30ak arte. Epea, apirilaren 16an bukatuko da. Txertoarekin batera, albaitekoak txakurren nortasun agiriaren gisakoa izango den eta hainbeste eztabaida sortu dituzten "mikrotxipak" jarriko dizkiete txakurrei.

### Hitzaldiak parrokiaren eskutik

Martxoaren 24, 25 eta 26an adintuentzat zenbait hitzaldi prestatu ditu Leitzako Parrokiak, Garizumako egitarauaren barnean. 24 eta 25ean Alberto Sola sendagilea adinekoen osa-



Zineko arduradunak lanari ekin diote berriz ere. Maila haundiko pelikulak ikusteko aukera izango dugu

Arg: JOSEBA

sunaz arituko da eta 26an, Iñaki Perurena eta Guillermo Gomez adinekoen gimnasiaz. Bi hitzaldiak arratsaldeko 5etan, Jubilatuen aretoan izango dira. Igandean (28an) berriz, goizeko 11etan meza nagusia izango da. Eguerdiko ordu bietan Basa-Kabi jatetxean bazkaria, bertara igotzeko Oialde tabernako atariatik eguerdiko 1,30etan autobu-

sa aterako delarik. Bazkari bitartean trikitilariak, Izaro bikotea eta akordeoia eta ondoren, dantzaldia izango dira.

Gurasoentzat berriz, martxoaren 26an eta apirilaren 1ean euskaraz eta apirilaren 2an, erdaraz, Eliz Ganbaran arratsaldeko 7,30etan izango diren beste hitzaldi batzuk antolatu ditu parrokiak.

### W ttipi-flash

- Mikel Etxeberria (Etxebe) eta Juan Mari Barriola (Txoma) gazteak epaitu dituzte aurten soldaduska egitearen aurka azaldu dituztelako beren buruak, bakoitzak bere pentsakera izateko dugun eskubidea berriz ere ukatuz.
- Zinemako udaberrirako programazioan punta puntako pelikulak ditugu: La Bella y la Bestia, Drácula, El silencio de la sospecha... (ikus agenda).
- Xabier Tomasena albaitekoak animalientzat klinika bat ireki behar du Elbarren kaleko 72an (Lesakeneko herria).
- Baserritar, ez ahaztu martxoaren 31an bukatzen dela Europako Elkarte Ekonomikoko 1993ko "superfizeik" dirulaguntza eskatzeko eta forrajatarako erabiltzen diren lurren deklarazioa egiteko epea.

### SAGASTI Jatetxea

Bokadilo goxoak eta paregabeko bazkariak

Tfnoa: 610637 - LEITZA

### ADUR TABERNA

Pintxoak, kaxuelak eta bokatak

Tfnoa: 610864 • LEITZA

### GAZTELU FONTANERIA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32

Tfnoa: 510086

LEITZA

### BELARRA

Janaridenda

Kosmetikoak

Belardietetika

Tfnoa: 510192 - LEITZA

**MAIMUR**  
LIBURU ETA PAPERDENDA  
ELBARREN, 15 - 31800 LEITZA - TFNO Y FFX 51 01 46

BAZTAN

Suak hainbat hektarea kixkali ditu

Nekazariak mugimendu bizian dabilta, PACerako eskaerak eginez

JOSEBA IGARABIDE

Baztango abelzain, nekazari eta xakurrak dituztenak mugimendu bizian dauden Baztan aldean. Une honetan eskaerak bete behar dituzte PAC laguntzarako eta jende ugari dabil egunotan Elizondo aldean, bai nekazari bulegoan eta paperak betetzen dituzten lekuetan (Balleko Etxean, etabar...), Xakurren txertoak ere martxan jarri dute bailara osoan.

Suteak

Baztanen urtero gertatzen ohi den bezala, aurten ere sute haundiak gertatzen ari dira. Aipatzeko artean, 50 Ha. baino gehiago erre dira Elizondoko Amezti aldean. Ez bakarrik sasia, 5.000 bertako haritz, 2.000 haritz amerikano eta 200 bat pinu, urkiak eta bertze zuhaitzak izan dira kiskaliak. Nafarroako gobernuko Ingurugiro departamenduak eta Baztango mendizainek, dei bat egiten dute surik ez dezaten mendian egin. Hori dela eta, deialdi bat izan zen Elizondon ingurugiroa defendatzeko asmoz.

Bertzalde, badirudi,



Erratzuko aduana zaharrean zenbait moldaketa egiten ari dira

Korrika ospatzeko Kultur Astea antolatu da

Korrikaren zortzigarren edizioa ospatzeko Kultur Astea burutzen ari da. 20ean, akordeoi kontzertua izan zen, 21ean goitiberak Bagordin, 22an, ipuin kontalariak, 23an soziolinguistika hitzaldia, 24ean, filmia emanaldiak, martxoaren 25ean, "D" ereduaren eguna, antzerkia, korrika ttiki, jokoak, txokolate jatea. 26ean, kantaldia izanen da Ra-

asmo txarrak sortzen dituztela zuhaitzak, zeren eta Bearzun eta Iñarbegi artean

muntxo eta Jojo eta Al-aska, gaueko 9etan Elizondoko pilotalekuan. Hilaren 27an pilota partiduak, eskuz, larru paleta eta joko-garbi 6etan Aranabian. Baita ere txiste afaria eta trikititza Arizkungo elkartean. Azkenik, 28an, 12etan Elizondoko plazan, bertsolariak, dantzariak, txalapartariak, txistorra jatea eta Izpegin Korrikari ongi etorria, arratsaldeko 2,55etan.

200 lizar sartutakoetatik 50 aizkoraz moztuak agertu dira.

W ttipi-flash

□ **Hualdeako** zubiak (Arraioz eta Mugaire artekoa), Ur Konfederazioak egindako estudio baten arabera ez ditu baldintzak betetzen. Lurrera botatzea eta bertze zabalago batekin ordezkatzeko proposatzen da.

□ **Erratzun** martxa bizian doaz camping eta aduana zaharra moldatzeko lanak. Camping-a uda honetarako martxan jartzea espero da.

Autopista

Dantxarinearaino?

Javier Pomes, Nafarroako gobernuko Finantzia sailburuak bi asmo eraman zituen Madrilera han eztabaidatzeko. Hauetako bat, Audenasak Belateko tunela bere gain har dezala. Berak hartuz gero peajearekin izanen zen tunela. Bigarren asmoa, Iruñetik mugaraino autopista egitea izanen zen. Bi autopista hauetatik bat Dantxarineatik joanen litzateke. Oraindik aurrez irriborroak badira ere, Madrilera erabakiaren esperoan gelditzen dira.

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939  
ELIZONDO

Udaberriko arropak eta telak

KASINO OSTATUA

Jaime Urrutia 10 - ELIZONDO

## Istripu gehiago Berroeta eta Almandoz artean


Pala Txapelketakoek, bertzalde, urteroko San Jose eguneko bazkaria egin zuten

PABLO MENDIBURU

Berroeta eta Almandoz bereixten duen karreteran hiru istripu izan ziren martxoaren bigarren astean. Okerrena, zerrikumez betetako kamioi baten gidaria hilik gertatu zela. Istripuak gutxiarazteko Nafarroako Gobernuak seinale gehiago jarri behar omen ditu eta Baztango udalak Maringo zubi ondoan dagoen etxean telefonoa jartzea onartu du, gertatutakoak lehenbailehen abisatzeko. 1992garren urtean bortz hildako izan ziren alderdi horretan.

Belateko tunelaren maketa, bertzalde, Bertizko jauregian jarri behar dute.

*Almandozko  
saihesbidea  
ideki zenetik  
istripu kopuruak  
nabarmenki  
goiti egin du,  
batez ere  
Maringo  
zubiaren  
inguruan.*



□ **Martxoaren 14ean** Aniz eta Berroeta artean izandako sute baten ondorioz, 15 hektarea erre ziren.

□ **Basaburuako** pala txapelketaren finala jokatu zen pasa den ortziralean Anizen eta urtero bezala

egun horretan bazkaria egin zen, aurtan Urgainen, jende aunitz eta giro ona izan zelarik.

□ **Herri Kirolean**, berriz, martxoaren 13a, Burlatan mutilak bigarren postua lortu zuten. Taldeak,

Sunbilla, Basaburua, Erratzu eta Berriozar. Neskek, berriz, lehen postua Berriozarri irabazi ondoren. Orain kadete mailako txapelketa hasi da eta Basaburuatik ere ateradataldea. Iaz txapelidun izan ziren.

M<sup>re</sup> Dolores Mirana **TOPOGRAFIA**  
**NEURKETAK • PLANOAK**  
 Lur neurketak  
 Luberrriak  
 Plantazioak, etab.  
 Santiago 68, 3. Esk. ☎ 580143 • ELIZONDO

**KIWI BAZTAN, S. A.**  
**FRUTONDOAK ETA LANDARE ORNAMENTALEN  
 ZUZENEKO SALMENTA**

MINDEGIA eta BULEGOAK:  
 Sutegia Etxea  
 31795 LEKAROTZ  
 ☎ (948) 58 11 01  
 Fax-a: (948) 58 11 01

**FZ**  
**FOTO ZALDUA**  
**ZURE EZKONTZARAKO**  
**FOTO eta BIDEO**  
**Erreportai on bat**  
 ELIZONDO ☎ 580491  
 DONEZTEBE ☎ 450364  
 MARKOEN TAILERRA eta zure  
 karreteak ORDU BATEZ REBELATZEN  
 DITUGU "FUJI" kalitatearekin.

**BAZTAN**  
**ALTZARIAK**  
**zurgindegia**  
 121 errepede nazionala, 54. km  
 Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon
- Haritz eta gerezi egurretan egindakoak

URDAZUBI

**ETB hobe ikusten da**  
Errepetidore berria paratu dute

ALIZIA OLAIZOLA

ETBko bi kanalen errepetidore berria martxan jarri dute duela hilabete bat. Bi urte joan dire lortzeko, gehiena subentzionatua izanez eta gainerakoa herriak ordaindua. Orain Zugarramurdin, Ainhoan, Ezpeletan, Saran eta inguruotako herriek ikusten ahal izanen dute ETB, eta gaizki ikusten zutenak, hobe ikusiko dute.

□ **Karrika** berritze eta bide hobetzeko obrak hasiak dira, Tejeriko auzotik hasiz

eta Iriberekotik segituz. Bideak hobetzeko obrak 42.840.820 pezeta kostako dira eta karriken zola berritze lanak 61.256.125 pezetan truk egingen ditu, Amaiurko «Construcciones Goienetxe» enpresak.

□ Martxoaren 6an ospatuzuten 1954tik 1958 bitarte jaiotakoek beren **kinto besta** Armuan, 35 lagun urdazubiar eta zugarramurdiar elkarretatuz. Afalondoan, dantzaldia izan zuten Joxe Angel akordeolariarekin.

Martxoaren 10ean Lan-



Anttoni Espelosin, bere familiarekin lautanogoi urteak ospatzen

dibarko Anttoni Espelosinek Sasterreneko etxean bizi dena 80 urte bete zituen. Urtebete hau ospatzeko bazkari bat egin zuten fa-

miliakoek. Aipatuko dugu ere Aitaxoneko Concepcion Bikondoak otsailaren 14ean 86 urte bete zituela. Zorionak bieri.

ZUGARRAMURDI

**Ureko arratoinak ikusi ditugu lehen aldiz**

KORO ETA MARGARI

Orain dela aste pare bat ureko arratoinak (nutriak?) ikusi ditugu lehendabiziko aldiz. Beheko belaian diren sasietan aurkitu dute txoko on bat beren kabiak egiteko eta seiko multzu bat (denak elkarrekin) ikusi izan dira, jakitera plaga bat ote den edo zer...

Itxuraz nahiko nazkagarriak dire, hankak azalez be-teak eta zakur baten negu-

rrikoak. Eguna iluntzerakoan ateratzen dire, eta oraingik bedenik, ez dirudion kalterik egin dutenik.

**Konsortzioaren kide**

Udalak bere azkeneko bileran honako erabaki hau hartu zuen: Bertizko Konsortzio Turistikoan kide bezala sartzea eta Jesus Agerre Indaburu (herriko alkatea) ordezkaria izatea bertan.



Aita Donostia 7 Tfnoa: 452111 - Faxe: 580980  
**ELIZONDO**



Zugarramurdiko karretera 3. Km  
Tfnoa.: 59 9131 - URDAZUBI



Santiago 71, ☎ 580166 - ELIZONDO

## EZKONTZAK

**Manolo Sainz Irigoien** eta **Mari-luz Zarikegi**, Sunbilla eta Iruñeakoa, martxoaren 19an.

**Antonio Ariztegi Etxenike** eta **M<sup>a</sup> Lourdes Karrikaburu Gortari**, Zugarramurdi eta Elizondokoa, martxoaren 6an.

**Juan Manuel Egidazu Urrutikoetxea** eta **Ana Cuartero Iturralde**, Iruñeakoa, martxoaren 13an.

## JAIOTZAK

**Amaia Mortalena Maskotena**, Elizondokoa, otsailaren 28an.

**Egoitz Prim Agerrebere**, Iruritan, martxoaren 11an.

**Lierni Sestorain Saralegi**, Leitzan, martxoaren 9an.

**Jon Zabaleta Renteria**, Leitzan, martxoaren 12an.

**Mahats Lanz Solbes**, Lesakakoa, otsailaren 23an.

**Itziar Telletxea Iguzkiagirre**, Lesakakoa, martxoaren 3an.

**Usoa Mitxelena Arriada**, Lesakakoa, martxoaren 4an.

**Argitxu Gerard**, Sarakoa, martxoaren 7an.

**Sebastien Mestelan**, Sarakoa, martxoaren 8an.

## HERIOTZAK

**Joaquin Petrirena Arretxea**, Sunbillan, otsailaren 6an, 72 urte.

**Ramon Arretxea Bertiz**, Sunbillan, martxoaren 6an, 70 urte.

**Feliciana Arretxea**, Sunbillan, martxoaren 12an, 82 urte.

**Presentacion Sagastibeltza Gaztañaga**, Urdazubin, martxoak 3, 60.

**Manuela Elizalde Etxeberria**, Elizondon, otsailaren 28an, 72 urte.

**Juana Elizalde Aizinena**, Iruritan, otsailaren 28an, 91 urte.

**Catalina Inda Ariztegi**, Arzikun, martxoaren 1ean, 80 urte.

**Martin Fco. Iturralde Dolagarai**, Elizondon, martxoaren 3an, 70 urte.

**Gabriel Arburua Sansiñena**, Etxalarren, martxoak 15, 88 urte.

**Periko Goienetxe Hardoi**, Zugarramurdi, martxoaren 9an, 55 urte.

**Eustakio Elizalde**, Ituren, martxoaren 7an, 80 urte.

**Jose Fco. Mitxelena Mitxelena**, Lesakan, martxoaren 8an, 57 urte.

**Maria Arozena Arozena**, Goizuetan, martxoaren 5ean, 100 urte.

**Pedro Erro Irigoien**, Zubietakoa, martxoaren 16an, 68 urte.


## ERRATZU OKINDEGIA

zure eguneroko ogia

453168 - ERRATZU

## OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245  
ORONOTZ-MUGAIRI



**Era guztietako instalazioak:  
Etxekoak, industrialak...**

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

ORAINDIK EZ DUZULA ESKURATU?

**ttipi-ttapa 92 URTEKARIA**

Ba... herri guztietan duzu aukera... MUGITU !!!



«ZALDUBI»  
SUKALDE  
MOBLEAK

Altzari fabrikazioa eta  
muntaia

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 58 05 62  
**IRURITA - BAZTAN**

## «Elkarri» mugimenduaren lehen pausuak

*Zonaldean osatzen ari da elkarrizketa eta akordioaren aldeko mugimendua*

Joan den urteko abenduan sortu zenetik komunikabideetan zer erran dexente eman duen giza mugimendua izan da «Elkarri». Euskalerrian bizi den gatazkaren aintzinean, elkarrizketaren alde omen dago jendearen gehiengoa (inkesta baten arabera hirutik bi) eta halere, sektore honek ez omen du inolako errepresentazio ofizialik. Horregatik, elkarrizketa eta bakearen alde dagoen jende guztiarentzat atek zabalik dituztela diote beraien idatzietan.

Gure zonaldean ere hasiak dira lehen pausuak ematen eta zenbait herritan talde lokalen aurkezpena ere egin izan da. Xehetasun gehiagoren berri, «Elkarri»-ko eraketa arduraduna den Gotzone Sestorain leitzarrarengana ere hurbildu gara.



Elkar ulertzea da bakerako bidea, Elkarriren ustez. Bertzela, ezinezkoa izanen omen da bakea eskuratzea, beti egonen baita gatazkarako alorra.

**E**lkarri giza mugimendua iaz hasi zen osatzen, elizaren inguruko sektoreak, lehen «Lurraldea» mugimendu ekologistan aritutako jendea eta bertze sektore zabaletako zenbait jende bilduz. Elkarriren helburuak hiru puntutan laburbildu daitezke: lehenik, gatazkan dauden zatien arteko elkarrizketa. Elkarriren horiek akordio batean gauza daitezen eta ondoren gizarteari kontsul-

tatzea, akordio hori jendearen iritziarekin kontrastatua izan dadin. Elkarrizketa zeinen artean izan behar den galdetzerakoan, Elkarri mugimenduko kideen ustez, “gatazkak alderdi aunitz dituenetz, elkarrizketa eta akordioa agente ezberdinen artean (alderdi politikoak, sindikatoak, ETA, ejerzittoa...) eman beharko litza-teke”.

Helburu hauek lortzeko egitura zehatz bat finkatua dute, herrietako taldeetatik

hasi eta urtean behin biltzen den Batzar Orokorra arte. Giza mugimendu guzietan bezala, dirua izan ohi da arazonagusia. Finantziariorako aportanteak lortzea omen dute lehentasunezko lana eta urria bitartean, hilero 1.000 pezeta emanen duten 4.000 aportante lortzeko asmoa dute. Diruaz gain, maiatza aldera elkarrizketaren aldeko firma bilteta egitea erabaki dute, bertze egintzen artean.

Bakearen aldeko mugimendua



Gotzone Sestorain, «Elkarri» mugimenduko Eraketa Arduraduna  
**«Euskalerrian bakea eskuratuko da, elkarrizketaren bidez akordioa lortuz»**



► Zerk ezberdintzen du «Elkarri» gainontzeko bake mugimenduetatik?

► Alde batetik errealitateaz egiten den azterketa eta bestetik, bakera iristeko bideak zeharo diferenteak dira. «Elkarri»ren ustez, Euskal Herrian bizi den gatazka egoera ezin da gaizto eta onen arteko borroka bezala planteatu, hori baino gorapilotsuagoa da. Euskal Herria eta estatu espainolaren artean gatazka politikoa, ekonomikoa, soziala, kulturala, biolentzia gatazka,

azken finean, subiranotasun gatazka dago. Beste bake mugimenduek azterketa murriztu egiten dute. Berriantzat Euskal Herriko gatazkaren arazo nagusia ETArek ekintzak dira eta

**«Bizi dugun gatazka egoera ezin da on eta gaixtoen artekoa bezala sinplifikatu»**

ETAk hiltzeari utziko balio bakea etorriko litzateke.

► Zenbait sektoretatik, ezker abertzalearen inguruko mugimendua zaretela erran

da. Zer uste duzu horretaz?

► Hemen bizi den polarizazioa dela eta mugimenduak sortzen direnean etiketak ezartzen dira. «Elkarri» kezka baten ondorioz sortzen da: orain arteko estrategiak ez dute deus konpondu. Elkarrizketa eta akordioa, berriz, unibertsalak dira. «Elkarri»k gizarte bitartekaritzaren bidea hartu duenez, alde batera edo bestera eginen balu ez luke lan hori beteko.

mendua da Elkarri, baina kontutan hartu behar da Euskalerrian ia biztanle bakoitzak bakearen definizio ezberdina duela. Elkarriko Gotzone Sestorain, Eraketa arduradunaren ustez, «errealitatea gorapilotsua da eta bake oso eta perfektorik ez dago. Baina bai egoera normalizatuago bat. Bakea lortzeko sektoreen arteko elkar ulertzea beharrezkoa da. Bestela ezinezkoa izanen da, beti izanen da gatazkarako alorra. Elkarrizketaren bidez akordioa lortzea, hori da bakea».

**Eskualdean lehen pausuak**

Bortziriak mailan talde bat probisionalki funtzionatzen ari da eta Arantza eta



«Euskal Herria eta estatu espainolaren artean gatazka politikoa, ekonomikoa, soziala, kulturala, biolentzia gatazka... dago»

Igantzin otsailaren bukaera aldera burutu ziren herriko taldeen aurkezpenak, 15-20 bat lagun bilduz. Bertze herrietan ere zehaztu dira aurkezpen horiek egiteko egunak; Lesakan, hilaren 24ean Herriko Etxean, Beran, hi-

laren 25ean Jamotenean eta 26an Etxalarren, eskola zaharretan. Aintzinetik zenbait tertulia egin dira eta hauen helburua, «Elkarri» mugimendua jendeari ezagutaraztea eta lan taldeak sortzea da. Ondoren, Bortzi-

riak mailako aurkezpen ofiziala eginen litzateke.

Malerrekan, herrietan tertulia egin ondoren Donezteben eginen da aurkezpen ofiziala, oraindik eguna finkatu gabe badago ere.

Baztanen, Elizondon egin zen tertulia hilaren 11an.

Leitzaldean, azkenik, hilaren 13an burutu zen talde probisionalaren tertulia. Zona honetan, orain arte Leitzan eman da bultzadarik haundiena.

Ekitaldi guztietan jende dextek parte hartu du, baina mugimendua zabaltea espero dute Elkarriko kideak.


Aitor AROZENA

Francisco Javier Irazoki:

## «Gizona oraindik ez duk estreinatu»

Poeta lesakarraren bilduma liburua argitaratu du Euskal Herriko Unibertsitateak

Joan den urtean, Francisco Javier Irazokiren orain arteko poema guztiak biltzen dituen liburua plazaratu zuen Euskal Herriko Unibertsitateak, «Gaur egungo poesia» sailean. “Cielos segados - Zeru segaz jotakoak” da bere liburuaren izena. Poeta lesakarrarekin mintzatu gara.



Euskararen mamia, arnasketa eta musika indartzeko, Eduardo Gil Bera eta Patziku Perurenaren sentsibilitatea kontuan iduki



**ttipi-ttapa.** Idaztera zerk bultzatzen dik?

**F.J. IRAZOKI.** Gizonak arindu nahi dik bere iluntasuna. Aunitz aldiz erran diat: Niretzat poesia leiho bat duk. Hala ere, ez diat ahantzi hitzatresnaosagabea dukela. Gizonak eraiki diken hiri edo paisaia ederrena, bere barrenean eraiki dik, zaratarik gabe.

**ttipi-ttapa.** Zein duk hire ametsa edo egin ezina?

**Irazoki.** Idatzi diat: “Ez nabil zorion bila. Ez naiz hain guttikin konformatzekoa”. Eta baita ere: “Ematen du porrota dela gizonak etengabe lantzen duen zinezko ederlan bakarra”. Beno, erabat etsita gelditu gabe, nahiz eta heriotzak bizitza mugatu, batzuetan ametsa baino paradisu haundiagoa aurkitzen duk hire ondoan. Begirada prest

iduki behar. Orduan, pausu bakoitzak puskatzen dik egin ezina. Horrela bizi nauk orain.

**ttipi-ttapa.** Norbaitek erranen balikek oraingobizi modua zaila dagoela, zer erantzunen liokek?

**Irazoki.** Gizon bakoitzaren barne paisaia erabakitzen dikela haren begirada eta ekintzak. Bizi modua beti gogorra izan duk, baina erantzuna gure eskutan zego. Zoritxarrez, Mende-

baldean azaleko ekintzak bakarrik lantzen dituk.

**ttipi-ttapa.** *Hire gustoko idazle batzuk?*

**Irazoki.** Izenak aukeratzea ez duk erraza. Nere iritziz, klasikoak lortu ditek behinbetiko mardultasuna: Pindaro, Shakespeare, Richter, Góngora, Dante Alighieri... Hogeigarren mendean Borges, Ezra Pound, Vallejo, Cernuda, Pessoa, Cioran... Baina gibelara edo urrutira begiratu gabe, orain eta hementxe bertan badituk sortzaile sakonak: Fernando Aranburu, Pablo Antoñana, Eduardo Gil Bera, Jorge Oteiza, Patziku Perurena, Jorge G. Aranguren...

**ttipi-ttapa.** *Hi, hemendik alde egin baino lehenago, kanpora begira egoten hitzen eta gero alderantziz. Esplikatu dezakek zer gertatu den?*

**Irazoki.** Unibertsoa ez duk lehortzen etxe ondoko lorategian. Nahiago diat izpiritu zabalaz ibili. Horregatik egon nauk munduko lorratzak bilatzen. Baina, hainbertze buelta eman eta gero, hurbileko gauzak eta pertsonak ez ditek magia txikiagoa.

**ttipi-ttapa.** *Euskadiri buruz hiru etsai? Eta hiru nahi?*

**Irazoki.** Euskadi ez duk uharte miragarri bat. Hemen, kanpoko noraeza bera zego. Hiru etsai? Azalkeria, nagidura espiritual eta sortasuna. Bakoitzak sendabiderik hoberena eskaintzen dik. Ni, baretasuna, jakituria eta sakontasuna proposatzen ari nauk. Gizona



«Requiem bat idazten ari nauk eta Koldo Pastorrek konposatuko dik musika»

oraindik ez duk estreinatu.

**ttipi-ttapa.** *Bortziriak eta inguruko euskararen egoera hire ustez?*

**Irazoki.** Jendeak euskararen arrastoa zabaldu dik; une hontako egoerak ez dik deus ikustekorikan gure haurtzaroko egoerakin. Adibidez, Matxinbeltzenea errealitate garrantzitsua duk. Dena dela, eboluzioari dagokionez, eginhala hori aintzineramamateko nahiko esku zabaltasun bildu beharko dituk.

**ttipi-ttapa.** *Etorkizuna? Alternatibak?*

**Irazoki.** Zaindaritzak ukatu gabe, noski, herri baten arretak sortzen dik edozein hizkuntzaren etorkizuna. Azkenean konturatzen haiz ez dukela bertze legerik. Aparte, euskararen mamia, arnasketa eta musika indartzeko, Eduardo Gil Bera eta



**«Jakintza kreamena osoari koherentzia emateko kemena duk. Ez diat uste sufrimenduari lustrea ateri eta lortzen ahal dukela jakintza»**

Patziku Perurenaren sentibilitatea kontuan iduki. Bi idazle horiek gure hurbilean bizi dituk eta inork baino hobekiago ezagutzen ditek euskararen bide ederrena.

**ttipi-ttapa.** *Zertan ari haiz orain?*

**Irazoki.** «Requiem» bat idazten ari nauk. Adierazpen garbiarekin hasi ninduan. Hagitz testu laburra izanen duk, berrogei bertso. Irudipenak baztertuz, gizona, gauzak eta izaki guztiak iragankor ditukela erraten diat lan honetan. Koldo Pastorrek konposatuko dik musika.

Testua: Josetxo SUSPERREGI  
Argazkiak: Valentin ABUIN

## «Josetxo Ezkurra» III. Memorialaren finalak

*Patxi Eugi eta Julian Retegi pilotari profesionalak izan ziren sari banaketan*

Martxoaren 7an jokatu ziren Doneztebeko eskolako frontoian Josetxo Ezkurra pilotari bikaina izandakoaren omenez antolatutako txapelketaren hirugarren edizioaren finalak.

Aurtengoan ere sei kategoriatan banatu dituzte parte hartzaileak eta ikusi diren pilota partiduak maila haundikoak izan dira. Sari banaketan, berriz, Patxi Eugi eta Julian Retegi pilotari profesionalak izan ziren.

### Finalen emaitzak

**Eskuz binaka, aurrebenjamin mailan:** Uterga (Doneztebe) - Cebrin (Baztan) 18; Arraztoa - Arraztoa (Baztan) 9.

**Benjamin mailan:** Goienetxe - Rementegi (Baztan) 18; Jaurena - Otero (Baztan) 11.

**Alebin mailan:** Argarate - Huarte (Baztan) 18; Alzugarai - Bidegain (Baztan) 8.

**Infantil mailan:** Alzugarai - Jauregi (Baztan) 18; Baleztena - Retegi (Eratsun) 15.

**Jubenil mailan:** Atxa - Goñi (Baztan) 18; Oskoz - Otxandorena (Baztan) 17.

**Beteranoen mailan:** Mindegia (Ituren) - Ordoki (Doneztebe) 22; Atxa (Elizondo) - Martin (Doneztebe) 17.

Malerrekako pilota eskolak merkatal etheen eta Eugi eta Retegiren laguntza eskertu dute.



Josetxo Ezkurra hirugarren Memorialeko pilotariak

ZALDUA

## Laxoak badu bideoa eta laguntzailea

Laxoak hamabostaldi ona izan du. Alde batetik, kirol honi buruzko bideoa aurkeztu zuten Mikel Ibarrola eta Tiburcio Arraztoak. Bideo hau (erdaraz egina) 4.000 pztatan aterako da salgai "Caja Rural"eko bulegoetan. Egileen ustez "laxoa pilota modalitatez zaharrena denez gorde behar den atxorrada". 1720. urtean lau gipuzkoar eta lau baztandarren artean jokaturako partidu baten berri badago eta XIX. mendean izan omen zuen garairik onena. Gerra Zibilaren ondoren ia desagertu egin zen eta 1980az geroztik berreskuratze lanetan dabilta.



TXEMA

### Denboraldi osorako laguntzailea

Bertzalde, martxoaren 14ean firmatu zen Iruritan Laxoa Elkartea eta "Licores Baines" enpresaren arteko konbenioa. Enpresa honek «Laxoa» izeneko

patxarana saltzeko asmoa du eta laguntzaren bitartez, laxoaren urte osoko aurrekontua estaltzen du. Aurkezpen partidoan, Iruritik 9 eta 2 irabazi zion Oitzeri.

## David Etxebarriak nagusitasunez eraman zuen Lesakako Udalaren II. txirrindulari saria

*Denboraldiari hasiera eman zaio, modu honetan, eskualdean*

David Etxebarria, «Café Baqué» taldeko txirrindulariak irabazi zuen Lehendakari txapelketarako baliagarria den II. Lesakako Udalaren saria.

Lesakan hasita eta Gardelko Bagoetako helmugaino 88 kilometrotako ibilbidea egin behar izan zuten afizionatu mailako txirrindulariek. Agiñako aldaparen hasieran gehienak elkarrekin bazeuden ere, azkeneak errex nagusitu zen Etxebarria.



Abantaila dexentea lortu zuen Etxebarriak Gardelko Bagoetako helmugan  
Arg.: AITOR

### Denboraldi hasiera

Lesakako proba honekin hasiera eman zaio eskualdean txirrindulari denboraldiari. Afizionatuen maila honetan, hilaren 28an burutuko da bertze proba bat Beran, maiatzaren 23an eta uztailaren 10ean Lesakan eta

hilabete horren 25ean Elizondon.

Jubenilen mailan, Beran egingen da lehen proba maiatzaren 15ean. Iruritan, maiatzaren 23an, ekainaren 19an Lesakan, 27an Baztanen, uztailaren 3an Donezteben, 11an Baztanen,

abuztuaren 11an Sunbillan eta irailaren 25ean Lesakan izanen dira bertze karrerak.

Kadete mailan, azkenik, uztailaren 6an Lesakan, 17an Baztanen, abuztuaren 6an Beran, 10ean Leitza eta irailaren 19an Oronozen izanen dira probak.

### Aizkora jaialdia Lekunberriko frontoian

Martxoaren 14ean aizkora jaialdia izan zen Lekunberri. Bertan Euskadiko 6 aizkolari hobeenak bilduz 600 ikusleren aintzinean. Lehen lana, kanaerdiko enbor bat moztea zen.

- 1.- Floren Nazabal (Etxarri Aranatz) 59"
- 2.- Antonio Jaunarena (Zubieta) 1' 04"
- 3.- Mikel Mindegia (Zubieta) 1' 05"
- 4.- Donato Larretxea (Bera) 1' 06"
- 5.- Angel Arrospide (Zumarraga) 1' 16"
- 6.- Jose Etxebeste (Igeldo) 1' 30".

Jarraian, bikoteka, 20 kanaerdiko moztu zituzten, horrela sailkaturik:

- 1.- Mindegia - Larretxea, 25' 43".
- 2.- Jaunarena - Nazabal, 27' 03".
- 3.- Arrospide - Etxebeste 30' 31"

## BOTE - PRONTON

- **ERRATZU**ko herri kirol taldea ikusteko aukera izanen dugu aurten lehen aldiz, erratzuar gazte koadrilla bat animatu ondoren.
- **KORRIKARI** ongi etorria emateko ekitaldien artean, hilaren 27an arratsaldeko 6etan, pilota partiduak izanen dira Irurritako Aranabian
- **M. MINDEGIA OLASAGASTI**ren kontrako aizkol apostua martxoaren 28an, 12,30etan Tolosako Zezen plazan. Jokoa 500 mila eta takilla.
- **Caja Navarra** txapelketaren finala, Iturengo Leitza-Apeztegiak irabazi zuten, Goizuetako Olaizola-Berroetari 22-20ko emaitzaz gailenduz.

## Hamabostaldiko jokaldiak



**Josetxo Ezkurra** III. Memoriala.

Malerrekako pilota eskolak hirugarren aldiz antolatatu du txapelketa hau eta gero eta parte hartze haundiagoa izaten du. Aurten Eugi eta Retegi izan ziren sariak banatzen.



**Laxoari** buruzko bideoa espainolez bakarrik egin dute.

Iniziatiba txalagarria laxoa promozionatzeko bideo bat merkaturatzea. Zoritxarrez, ordea, egileek "ahaztu" egin dute publiko zabal hori euskaraz mintzo dela, 1720. urtean bezalaxe.

# MERKATU TTIKIA

## Etxebizitzak

- **Beran** pisua salgai Kanttonberrin. ☎ 630485.
- **Lesakan** pisua eta 200 m<sup>2</sup>tako bajera salgai. Leku industrialia. Nahi izanez gero guztia edo bertzenaz zatika. ☎ 637872.
- **Apartamentua** salgai Saloun, berria eta moblez-tatua, Cordoba etxea. ☎ 943-628372.
- **Baserria** alokatuko genuke, bizitzeko prestatua, ura, baratza eta zeramika tailer bat jartzeko tokia izan dezala. Bitartekaririk gabe. ☎ 450769.
- **Pisu** bat alokatzen da Beran. ☎ 631218.

## Salerosketak

- **Pekines** arrazako bi txakur salgai. ☎ 631218.
- **Kitarra** 'Ibanaz' maleta eta pedalakin salgai 40.000 pztatan. Kablea eta zinturona oparizat. ☎ 581039.
- **Mendi** motoa Bultaco Serpasalgai. ☎ 943620317.
- **Kawasaki** KLR-650 Trail motoa salgai 350.000 pezetatan. Urria bitarteko asegueroa. ☎ 631034.

• **Erremolke** bat estrenatu gabea salgai, prezio onean. ☎ 635167.

• **Talbot** Horizon kotea, motor berriarekin salgai. ☎ 510404.

• **Eskiak** eta **botak** (43a) salgai, estrenatu gabeak. Prezio interesgarria. ☎ 514081.

• **Furgoneta** salgai, Leyland Freix Rower, NA-N, tarjeta komarkala publikoa. ☎ 510132 (eguerditan).

• **Tximeneta** instalaziorik behar ez duena salgai. 80 edo 240 m<sup>3</sup> berotzen ditu, kontsumo baxua, erregulablea. ☎ 635256.

• **Ordenagailua** PC 1512, momitore eta 6 jokorekin. Gainera Wordstar programarekin. 65.000 pezeta. ☎ 630419 (7-8etara).

• **Komedoreko** 6 aulki, zabaltzen den mahai handia eta kuadroa salgai. Dena berria dago. ☎ 510574.

• **Alfa-Laval** ordeñadora salgai modu onean. Ongi zaindua. ☎ 634133.

## Denetarik

• **Lesaka** edo **Beran** perla txurizko pultsera galdu dut. Deitu mesedez ☎ 637095. Eskerrik asko.

• **Etxalarren** argazki-makina bat aurkitu da. Bere jabeak telefono honetara dei dezala: ☎ 635041.

• **Bi neska** behar dira Iruñean (Txantrean) pisubat konpartitzeko. ☎ 121115 (8etatik aurrera deitu).

## Harremanak

• **Urdazubiko** Angela Barrenetxearentzat, zure 16. urtebetetzearengandik (martxoak 29a) zorionak. Ongi ospatu zure lehengusua Aliziaren partetik.

• **Goizuetako** Martina Loiarteri zorionak zure urtebetetze egunean. Ongi pasa egun hori zure famili eta senarraren partez.

• **Leitzako** Rociori bere 19. urtebetetzean eta aita Peperi santu egunean zorionak ama eta anaiaren partez.

• **Goizuetako** Miriam eta nere lehengusu Iñakiri zorionak. Ondo igaro dezazutela eguna. Izaskun Makazaga.

• **Leitzako** Iñigo Zubillagari zorionak zure 6. urtebetetzean zure guraso eta anaian partez.

• **Zorionak** eta muxu haundi bat Aresoko Kristinari bere urtebetetze egunean (martxoak 7). Juana Mari, Zuriñe eta Uxue.

• **Goizuetako** Mary eta Rosariori zorionak zuen urtebetetzean. Iñaki zuri ere. Ongi pasa! Josune.

• **Iruritako** Arantxa U.: zorionak zure urtebetetze egunean (martxoak 20). Zure lagun G.ren partetik.

• **Goizuetako** Ainara, Ziortza eta Nagoreri zorionak zuen urtebetetze egunean. Muxuak. Eider, Izaskun eta zuen kuadrilako mutilak.

• **Arantzako** brujari: Berako eskolaren sarreran erran nizuna gezurra da. Enbidia neukan eta daukat. Barkatu arren, Eskerrik asko.

• **Doneztebeko** Felipe Ganboarentzat. Zutaz maitemindurik nago. Oso polita zara. Ea laster ikusten garen. Muxu bat Etxalarko neska baten partez.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: .....

.....

.....

.....

.....

**ttipi-ttapa**

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

**ttipi-ttapa** ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK .....

HELBIDEA .....

HERRIA ..... Tfnoa: .....

**ttipi-ttapa**

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

# HAIZGORI S.L.

- MEKANIKA
- KARROZERIA
- GRUA 24 ORDUETAN


ZALAIN AUZOA  
31780 BERA  
Tfnoa: 63 13 11

## KOTXEAK AUKERAN

- ✗ Bertakoak eta Inportaziokoak
- ✗ Era guztietako markak, modeloak eta prezioak
- ✗ Berriz erosteko garantia
- ✗ 3 eta 12 hilabete bitarteko garantia duten ibilgailuak
- ✗ Behar duzuna bilatuko dizugu

## FINANTZIAZIOA, ASEGURUA ETA TRANSFERENTZIA ERREXTEN DIZUEGU

MARKA	MODELOA	Matrikula	KM.	PREZIOA
RENAULT	SPACE TDS 88 cv	Inportaziokoa	71.000	3.450.000 pzt.
OPEL	FRONTERA 2. 4i L.	NA - AD	10.000	2.650.000
AUDI	100 TDS ABS	Inportaziokoa	43.000	2.500.000
WOLKSWAGEN	CORRADO 16 V	NA - Z	60.000	2.300.000
NISSAN	PATROL L. TD 6C	M - KU	33.000	2.200.000
AUDI	90 2.2	NA - X	50.000	1.950.000
AUDI	90 2.2	NA - X	90.000	1.850.000
OPEL	ASTRA GLS 2.0i	NA - AF	37.000	1.800.000
WOLKSWAGEN	GOLF GTI 16V	NA - W	75.000	1.550.000
MASERATI	2.5 BITURBO	SS - AF	87.000	1.500.000
PEUGEOT	309 GTI	BI - BB	56.000	1.400.000
FIAT	CROMA TDS 118 cv	SS - AF	80.000	1.000.000
SUZUKI	SAMURAI 1.3	NA - AD	19.000	975.000
RENAULT	EXPRESS 1.6 D	SS - AH	80.000	725.000
PEUGEOT	205 GTX 1.6	NA - X	37.000	750.000
CAPRI	2.8 i	SS - P	80.000	650.000
CITROEN	BX 1.9 D M. berria	NA - P	00	650.000
ALFA ROMEO	33 1.5 4x4 F.	NA - P	55.000	500.000
RENAULT	11 TXE	NA - O	100.000	475.000
OPEL	CORSA 1.0	NA - M	82.000	450.000
PEUGEOT	205 GT	SS - U		450.000
FORD	FIESTA 1.1	SS - P		350.000
RENAULT	5 TX	NA - M		350.000
SEAT	FURA 5V	SS - P		200.000
RENAULT 14		Zenbait		150.000





ASESORIA  
ASEGUROAK  
GESTORIA

**M<sup>ca</sup> JOSE DEL MORAL ARIZTEGI**

**Gure Asesora ELIZONDO**

**GESPAM, S. L.**

- Nominak, TC<sub>1</sub> eta TC<sub>2</sub>, erretentzioak, ziurtagiriak, kontratoak eta dirulaguntzak, lan inspekzioak...
- Informatizatutako kontabilitatea, itxiera kontablea, liburuen legalizazioa, analisi edo interpretazio kontablea...
- Deklarazioak (IVA, errenta, elkarteak) eta Haziendaren aintzinean tramiteak.
- Elkarteen Osaketa, lizentzia fiskalak, Erakunde Zentsuaren aintzinean tramiteak eta Erregistroak...
- Aseguro mota guztiak: kotxea, etxebizitza, merkatal etxea, industriar, bizitza...
- Ibilgailuen transeferentziak eta bajak, Garraio txartelak, gidatzeko baimenen berritzeak, ziurtagiriak, lizentziak...

MENDINUETA 12

**ELIZONDO**

Tfnoa eta Faxe: 452192

# ALMACENES ETXANIZ, S.A.



Marmolezko enzimera duen 70 zm. armairu lakatua  
lababoa sartzeko modukoa + momomando griferia + ispilua:  
guztia 59.000 pzta BEZ barne

**Lesakako Iturria anaiak**

Armairu lakatua  
+ lababoa + grifoa + ispilua  
Guztia, 28.500 pztatan  
BEZ barne

Martxoa: Monomando  
Griferiaren hilabetea  
**% 15eko  
DESKUENTOAK**

**Juan Arana, 3 - Tfnoa eta faxe: (943) 611767 - IRUN**